

Goi

Goierritarra aldizkaria

402 zenbakia 2011ko ekainak 3



**LOINATZ
ABESBATZAK
25 URTE**

Mondragon Unibertsitateko
Enpresagintza fakultateko
dekanoa

LANDER BELOKI



ARGI
OPTIKA

zure ikusmena zainduz
zure estetikaren oinarritzko osagaia

EMW3

Nafarroa etorbidea, 14 Beasain
T 943 88 31 10 www.argioptika.com

PRADA Salvatore Ferragamo CXTÉ ROMEO GIGU



faktore



ORDIZIA
OSASUN ZENTROA

Goierri kalea
Tel.: 943 164 048
Faxa: 943 164 703
20240 ORDIZIA



CORNAGO OLIVER Dr.
Ginekologia eta obstetrizia

Endokrinologiako eta
ginekologiako espezialista

Hilekoaren aldaketak,
kiste anitzeko obulutegia,
ile ugaritasuna,
kontrazepzioa...

Ugalkortasun arazoak

Menopausia

Azterketa ginekologikoak

Haurdunaldiaren kontrola

4D ekografia

R.P.S. Nº 149/10 LLG.

**Eguzkitako
betaurreko
graduatuak**
kristalak barne
57€

**AZKEN
DENBORALDIKO
BETAURREKOAK**

Eskaintza hau baliagarria izango da 2011/06/30ra arte. Kontsulta itzazu optikan, kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da pilatu beste promozio batzuekin.

J.M. Barandiaran Enp. • Tel.: 943 88 99 88 • ORDIZIA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan



Eneritz Gorrotxategi

Maiatzaren 15eko mugimendua, haserretuen mugimendua da. Ez daude konforme gizarte honetan ikusten eta noizten dituzten zenbait kudeaketa sistemekin eta horien ondorioekin. Plaza bat baino gehiago izan dira protesta guñeak. Herri baten barruko herrixka izateraino iritsi dira; zerbitzuak ere euren kasa sortu dituzte: liburutegiak, haurtzaindegiak, plazak...

Herritarren hitzari entzungor egiten dietela salatzen dute haserretuek. Bistakoa da agintarien eta herritarren artean, distantzia handia dagoela; herritarren eta kargu politikoak betetzen dituztenen artean. Estratosfera ezberdinetan gaudela dirudi. Gizartearen ispilu bat besterik ez da haserretu hauena. Bada jende gehiago ere haserre: eskola publikoetako jangeletako langileak esaterako; baita guraso eta irakasleak ere. Jaurilaritzako Hezkuntza sailak hauei ere, entzungor egiten die. Adibidea errepikatu egiten dela esango nuke: auzi honetan, muturreko bi jarrera daude, eta enpresen negoziatzaierako borondate eskasaren aurrean, Jaurilaritzak bitartekaritza proposatzen du irtenbide gisa.

Bistakoa da agintarien eta herritarren artean, distantzia handia dagoela.

Estratosfera ezberdinetan gaudela dirudi.

Gatazka eta haserre hauen aurrean, gizartea da elkartasuna adierazten lehena; "estratosfera bereko jendea" alegia. Haserretuen kanpalekura joan izan da jendea jana, lo-zakuak eta bestelakoak eramatera. Jangeletako langileei elkartasuna adierazten berriz, zenbait guraso, ikasle eta irakasle izan dira, baita sindikatu abertzaleak ere.

Krisiak herritarrek astintzen ditu eta hauen auzietan, diru-murrizketa da eskaintzen duten irtenbidea. Banketxeak larri daudela entzun bezain laster ordea, kalkulagailua eskuan matematikak egiten hasten dira, zenbateko diru-laguntza eskaini dezaketen aztertzen. Bistakoa da bai, herritarrek, jarrera hermetikoa duten agintari politiko ugari eta banketxe edo enpresari handiak, oso estratosfera ezberdinetan gaudela.

Krisia, banketxeak eta agintari politikoak aipatuta, ikusi berri dudan Debtocrazy dokumentalaren datorkit gogora. Greziako erreskatetik abiatuta, zorra jaulkitzean oinarrituta politika ekonomiko mundialak sortutako sistema injustua salatzen du. Nola sinetsi herritarrok dugula subiranotasuna, gehien eragiten diguten erabakiak banku zentralak edo rating agentziek hartzen badituzte? Nola sinetsi egoera horretan demokrazian?

Maiatzaren 15eko mugimenduaren atzean arrazoi eta inpultso asko daude. Badira kontraesanak –gizakia tarte-ko izaki–, baina gai batzuk iritzi publikoaren eztabaidetara ekartzea bera ez da gutxi! Hala ere, niretzat ez da nahikoa haserre adieraztearekin. Protestaren bidezko bidea baztertu beharrik gabe, gauzak aldatzeko lan egin behar da. Aldaketak apaltasunetik eta beheko lanetik hasten dira.

Jan-gatazkei dagokionez, eskemak beti antzekoak dira. Harrigarria egiten zait oraindik patronal-langile ezberdintasun hori ikustea. Weber-en eta Marx-en garaietatik datozen bereizketek ez diote egungo gure gizartearen kon-


Weber en eta Marx en garaietatik datozen

bereizketek ez diote egungo gure

gizartearen konplexutasunari erantzuten.

plexutasunari erantzuten. Langile klasea bera existitzen al da ba? Fabrika batean 8 ordu lan egin eta BMWan Jakako etxebizitzara eskiatzera joaten dena proletarioa da? Eta nola deitu unibertsitatean eta atzerrian ikasi, eta egunean 10 ordu lan eginez 1000 euro irabaztera iristen ez den pertsonari? Indignatu bakarrik?

Egungo gizartea XX. mendearen lehen zatiko eskemetatik irakurtzen dugu, alegia sindikatu, alderdi politiko, sistema politiko, klase bereizketa, eta abarretatik. Baina egungo gizartea ezberdina denez, irtenbideak ere estruktura ezberdinekin bilatu behar dira. Nire proposamena: atzerago begiratzea euskal tradizioan. "Udalaren lurrei" berriro ere "herri-lur" deitzen hasten garenean, agian ez dugu gehiago estratosferez hitz egin beharrik izango.



Ion Muñoa

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Alzaga, Arama, Itsasondo eta Legorretakoko udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

Goi
Goierritarra aldizkaria

Argitaratzailea:
Goierriko Hedabideak S.L:
Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:
goierritarra@goierrikohitza.info
Telefonoak:
Erredakzioa: 943 16 00 56
Publizitatea: 647 319 775
Harpidetza: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Homeopatia

Animalia, mineral eta landare erreinutik datozen erremedioekin egindako medikamentuak dira eta beste medikamentuekin batera hartu daitezke, haurren, haurdunaldian dauden emakumeen eta adinekoen osasuna arriskuan jarri gabe.

Nola jaiotzen da homeopatia?

Hipokratesen teoria bikoitza kontuan izanik, sendakuntza bi bidetatik iritsi daiteke: aurkako sintomak eragiten dituen medikamentu baten bitartez, edo sintoma berdinak eragiten dituen medikamentu bati esker.

Hanhemann homeopatiaren aitak, medikuntzako liburu batetik malaria sendatzeko erabiltzen den quininaren ezaugarriak itzultzen ari zela, quininak pertsona osasuntsu batean malariaren sintomak eragiten dituela irakurri zuenean, quina dastatu zuen, malariaren sintomak jasaten hasi zen arte. Hartzeari utzi zionean, hauek desagertu egin ziren. Harrezkerotik, Hipokratesen berdintasunaren legean oinarrituta, homeopatiaren filosofia, erremedioak



eta prestakuntza garatzen jardun zuen hil zen arte.

Bizi indarra

Sendagai homeopatikoeak, dosi txikietan gorputzari bere bizi indarra aktibatzen laguntzen diote sufritzen duten sintomak gainditzeko lagunduaz. Beharbada errazago ulertuko da, txertoen ekintza gure gor-

putzean azaltzen badugu. Txertoak gorputzari antigorputz batzuk sortarazten dizkio eta homeopatiak bizi indarra eragiten dio. Nola? Gorputza sufritzen ari den minen sintomatologia berbera eragiten duen erremedioaren bitartez.

Zergatik pizten du homeopatiak gure bizi indarra? Kirola egitean gure energia



Maite Larraza
homeopata

pizten bada, homeopatiaren prestakuntzan agitazioen bidez erremedioen energia aktibatzen da, gainera oso sustantzia gutxi erabiltzen da, gorputzari toxizidaderik eragin gabe.

Homeopatiaren praktikan, lehenengo kontsultan homeopatak ongi ezagutu behar du pertsona, bere antzekoena den erremedioa aurkitu ahal izateko. Bilaketa hori, izatasuna, bizitako esperientzia propioa eta hereditutako konstituzioa dira kontuan hartzen direnak. Laborategi farmazeutikoetan ekoizten dira eta legezko osasun araudiak betetzen dira.

Sendagai homeopatikoeak, dosi txikietan gorputzari bere bizi indarra aktibatzen laguntzen diote sufritzen duten sintomak gainditzeko lagunduaz.

ibaiondo
altzariak

barne diseinua

dekorazioa

sukaldeak

proiektuak

Katea, 5 - Antzizar auzoa
BEASAIN
tel.: 943 16 40 40
faxa: 943 16 47 47
mug.: 639 631 640
www.mueblesibaiondo.com

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak

Filtroak, olioak, engrasea

Frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak

Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

TERAPIA ALTERNATIBOEN ZENTROA

Oriamendi, 24 - Beasain

Osteopatia, Sakro-garezurreko Terapia, Masajea, Reflexologia - **Arantxa Urkia: 606 381 534**

Homeopatia, Masajea, Sakro-garezurreko Terapia, Kiropraxia - **Maite Larraza: 656 325 005**

Ibaialde 2011

Landarlan Ingurumen elkarteak aurten ere Ibaialde programan parte hartu du. Ikerketa gune bezala Ordiziako sarreran, Urdaneta kalean, dagoen Oria ibaiaren zatia aukeratu dugu, Malkasko zubitik hasi eta iturria dagoen arteko tartean zehazki.

Ibaiaren egoera aztertzeko eta baloratzeko jarraian azalduko dizkizuegun ezaugarriak behatu dira.

Gizakiaren eragina

Ingurua oso eraldaturik dago, hirigunea baita. Industriak, urbanizazioak eta garraio azpiegiturek ibai guztiz bideratu eta kanalizatu dute. Ibaiak ekosistema bezala ura eta ertzak hartzen ditu eta kasu honetan ez dago uholde lautadarik eta ertzak estuak dira. Hondakin gutxi ikusi dugu. Agian aurreko egunetan egindako euriaren ondorioz, begi bistan ez zegoen hondakin gehiegirik. Kultur ondarea bezala Donejakue bidea hemendik igarotzen dela aipatuko dugu.

Uraren analitikak emaitza onak eman ditu

Urak kudeatzeko kolektoreak uraren egoera fisiko-kimikoa asko hobetu du. Hala ere, hiru parametro negatibo izan ditugu: uhertasuna (uraren gardentasuna), bakterio koliformeak eta pHren balioa. AHTren lanak direla eta, Mariaratzetik datozten urek uhertasunean eta pHan eragina dute. Bakterio koliformeak gorotz kutsaduraren adierazleak dira. Berez ez dute osa-



sun kalterik sortzen baina beste mikroorganismo eta birus presentzia potentziala adierazten dute. Nonbait ur fekalen isurketa egon dela ondorioztatu dezakegu.

Biodibertsitatea

Ibarbasoaren egoera ez da ona. Luzeran ez da jarraia eta ibaiaren zabaleran ere ez du azalera handirik hartzen. Zuhaitz (haltzak, urritzak,...) helduak egon arren, sasiak eta zuhaixkak ugariak dira. Gainera, kanpoko espezieak

lehian daude bertakoekin. Bestalde, fauna ere kontutan izaten da. Gorago esan bezala, uraren kalitatea ona izanik, arrain espezie hauek bertan bizi daitezke: barboa, loina eta ezkailua. Erreketako hegaztiak ere erraz ikus daitezke: lertxuna, basahatea, uroloa. Kaioak ere sarri ikusten dira. Azkenik, ezin ahaztu gizakiarekin batera doan arratoi ezaguna.

Ezaugarri guztiak baloratu ondoren, emaitza orokorra, ikerkutako ibai zatia egoera txarrean dagoela da. Ekosistema eraldaturik dago giza eraginarengatik. Dena den, urak kudeatzeko azpiegiturak, kolektoreak, uraren kalitatea hobetu du. Hori dela eta, espezie exotikoak kontrolatuz eta ibarbasoaren berreskurapena bultzatuz ibaiaren egoera hobetzea posiblea litzateke.

JAKIN BEHARREKOAK

Laponia eta Indonesiako basoen aldeko garaipenak: Helsinkin finlandiar gobernuak eta Sami herriaren arteko gatazkaren amaiera sinatu da, samiek elur-oreinak bazkatzeko eskubidearen aldarrikapen historikoaren alde. Akordioaren bidez, baso borealaren 80.000 ha ebakialdi industrialetik kanpo geratuko da. Era berean, Unilever enpresak (Kit Kat-en ekoizlea) palma olioaren Sinar Mas enpresari erosteari utzi dio, Indonesiako oihanen deforestazioaren arduraduna delako.

'Amigos de la Tierra' elkarteak Afrikako gose-teak handituko direla aurreikusi du. Palma, artoa eta azukrea ekoizteko oihanak suntsitzen ari dira eta produktu hauek bioerregaiak egiteko landatzen dituzte. Gainera, oinarriko elikagaiak garestituko dira, herrialde aberatsentzako bioerregaiak ekoiztuz, bertako elikagaiak murriztuko baitira.

Orduñako Udalak, Bizkaiaiko Foru Aldundiak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak elkarlanean ari-tuko dira Rana dalmatia igela babesteko.

Otsoa berriz Katalunian. Quercus aldizkariak argitaratu duen ikerketa baten emaitzak dira. Orain dela 70 urte ikusi zuten azken aldiz otsoa Katalunia. Iparraldean agertu da berriz otsoa Alt Urguelen, Berguedan, Ripollesen...

 **landarlan**
ingurumen taldea

Landarlan taldeak egindako orrialdea. Taldean parte hartu, gairen bat aportatu edo alberteren bat bidali nahi baduzu:
☎ 943161244 landarlan@yahoo.es

Ezaugarri guztiak baloratu ondoren, emaitza

orokorra, ikerkutako ibai zatia

egoera txarrean dagoela da.

Ekosistema eraldaturik dago giza

eraginarengatik.

Zero eta huts

Maizpide euskaltegia

Biak dira zuzenak, nahiz eta gauza bera ez izan! Noiz erabili bata eta noiz bestea?

a) Zero: zenbaki-izena da. Telefono-zenbakiak esatean, adibidez, horixe erabili beharko dugu.

Goierritarra: 943 16 00 56 (bederatzi, lau, hiru, bat, sei, zero, zero, bost, sei)

b) Huts: ez da zenbaki-izena, zenbatzailea baizik! Kirol emaitzetan erabil dezakegu:

Jo dezagun, Realak lau gol sartu dizkiola Bartzelonari eta ez duela bat bera ere jaso. Nola esango dugu? Bada, horrela: *Realak lau eta huts* irabazi dio Bartzelonari.*

Golik gabeko berdinketa izanez gero, berriz, horrela esan beharko dugu:

Realaren eta Bartzelonaren arteko partida hutsean amaitu da.

Futbolearen bezalaxe, beste edozein kirolean, jakina:

Tenisean: *Bigarren set-eko lehen jokoa Djokovic serbiarra da nagusi: berrogei eta huts (40-0).*

Pilotan: *Ezkurra eta Lizaso doneztebarrak zazpi eta huts (7-0) jarri dira aurretik.*

Temperatura egoki esateak ere ez dizkigu nolanahiko buruhausteak ematen! Aldian aldiko kasuari begiratu beharko diogu horrelakoetan: zenbaki-izena denean **zero** esan, eta zenbatzailea denean **huts**.

Adibideak:

- *Atzo, sei gradu zero gainetik; gaur, aldiz, bi gradu zero azpitik.*

- *Hozberoa hutsean dago: zero markatzen du termometroak.*

(*) **Oharra:** gaztelaniaren eraginez, eta juntagailua "jateko ohi-tura" du batek baino gehiagok, baina euskarak ez du horrelakorik ametziten.



ZUZENDU, BEHAR IZANEZ GERO...

Nola amaitu da Beasainen eta Ordiziaren arteko adiskidantza (lagunarteko) partida?

- a) Bi eta zero.
- b) Hiru-hiru.
- c) Huts eta bat.
- d) Zero-bost.
- e) Launa.
- f) Sei-huts.

OHARRA: Bi bakarrik dira zuzenak ("c" eta "e").

● Pintxo hotz eta beroak
● Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA ☎ 943 16 03 04

Egurrezko leihoak, kontraleihoak, ateak eta eskailerak neurria.

JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU

kutxa

Goierriko agenda eguneratua

+

aurrerapenak

Ale
zaharrak
PDF-n



Azken aldizkariko eduki osoa

+
eduki
gehigarriak

↓ Iritzi
artikuluak

Lander Beloki
zaldibiarra,
Mondragon
Unibertsitateko
Enpresagintza
fakultateko
dekanoa krisiaz
hizketan:



**“Lanpostu
berriak sortu eta
langabezia
jaisten hastea da
garrantzitsuena”**

Bizi dugun krisialdi ekonomikoa dela eta, azkenaldian ekonomiari lotutako albiste ugari entzuten da. Aurreikuspen baikorrenak ere gairatzen ari den krisi ekonomikoaz aritu gara hizketan Lander Beloki zaldibiarrekin. 40 urte ditu eta Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza fakultateko dekanoa da. Egoera zail honetan aurrera egiteko hainbat gomendio eman digu Belokik.

Azkenaldian ekonomiaz asko hitzegiten da. Galdera asko egiten al dizkizute?

Jendeak kezka handia dauka. Jendeak zer pasatu behar den galdetzen du. Susmo batzuk bazeuden, baina, inork ere ez zekien zer etorri behar zen. Ikustena zen, hazkuntza ekonomikoa oso indartsua izaten ari zela, etxebizitzarekin pasatu zena oso-oso arraroa zen. Denbora gutxian halako prezio hazkuntza egotea, halako eskaria egotea eta egindako dena saltzea... Nabarmentzen zen jendeak ez zuela hainbeste etxebizitza behar baina hala ere saldu egiten ziren, eta gainera prezioak igo egiten ziren. Orain, esatea erraza da baina ematen zuen nonbaiten lehertu behar zela. Eta lehertu zen. Oso zabala izan da eragina.

Hemen, eragina eduki arren, ez du horrenbestekoa eduki. Euskadi mailan orain dela 30 urteko langabezia tasa handi-handia zen, gaur egungo Espainiako langabezia tasaren berdina. Eta orain ikusten dena da, eusten ari

“Euskadi mailan orain dela 30 urte langabezia tasa handi handia zen, gaur egungo Espainiako langabezia tasaren berdina. Eta orain ikusten dena da, eusten ari garela, nahiz eta igo egin den”.

dela, nahiz eta igo egin den. Mediterraneo arkuari, inbiliaria munduan oinarritu delako hazkuntza, desastre bat dago. Okerrena da, laburrera ez dela alternatibarik ikusten. Erraz esaten da sistema ekonomikoa aldatu behar dela, bioteknologia esaten da...baina hori egiteko jende mordo bat formatu behar da, enpresa berriak sortu, laguntzak eman... emaitzak luzera nabarrituko dira. Normala da jendeak kezka edukitzea. Ikasleek euren ere bai, ateratakoan zer izango den galdetzen dute. Gu atera ginenean ere, krisi garaian atera ginen eta gu ere joan gara lekua bilatzen.

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza fakultateko dekanoa zara. Gazteak ikasteko motibatuta daude?

Nik uste dut krisi garaian nabaritzen dela. Zailtasunak eduki arren, ondoen moldatzen dena, gero eta kualifikazio altuagoa daukana da. Aukera gehiago dago formazio gero eta gehiago edukita. Hori lege bezala ez da kasu guztietan gertatzen. Unibertsitateak pasatutako jendeak lana bilatzeko ere arazoak dauzka. Formazioa garrantzitsua da eta formatzen jarraitu behar da. Beste mezua bat da, gauzak inoiz ez direla errazak izan. Gauzak kostatu egiten dira.

Langabezia arazorik ez zegoenean, jendeak maila baxuagoko ikasketei heldu zela esaten da, jendeak errazera jo zuela. Hori aldatzen ari al da?

Ez hori bakarrik: Unibertsitatean ikasten zuen jendea hortxe gelditzen zen eta ez zuen aurrera jarraitzen, lana aukeratzeko modua zeukalako. Orain master bat egingo du, edo kanpora joango da, edo lanean egonda ere itzuli egingo da... Horretan nabaritzen da eragina. Azken bi urteetan ikusten ari gara, orain arte formazioaz kezkatu ez den jendea, gauzak orokorrean errazago izan direlako, orain kezkatu egiten dela. Sakrifizio pertsonala egiten dute, ikusten baitute, egunean egotea, prestatuta egotea behar bat dela etorkizunari begira.

Krisialdietatik beti ikasten omen da zerbait.


Bai eta nik uste dut hori barneratu dela. Nazioarteko testuingurua kontuan hartu behar da. Ekonomikoki atzerago dauden herrialdeetan eta handitzeko aukerak dauzkaten herrialdeetan, seguru, gu baino sakrifizio gehiago egiteko prest daudela. Orain arte gu egiteko gai ginen gauzatan eta lehiakorrek ginen gauzatan, izaten uzten ari gara, beste lekuetan mugitzen ari delako. Horrek azkenean mehatxu bat suposatzen du,

Oskarbi Oinetaokak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetaokak
Sekundino Esnaola 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetaokak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetaokak
Erdiko Kalea
Tel 943 711 804
Arrasate





ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA



www.txekin.net

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 5 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble

ajentzia

EGUERDIZ IREKITA
9:30etik 19:00etara
ostiralean:
9:30etik 15:00etara

ikusita zein soldata dauden hortik zehar eta zer gauza egiteko gai diren lanpostu horietan, hemengo hainbat enpresa mehatxatuta sentitzen ari dira. Zer egin behar da? Merkatuan benetan konpetitiboak diren gauzatan zentratu. Horretarako prestatutako jendea behar duzu, mundu guztian mugitu behar zara... hemen ez daukazu ezer garantizatuta eta horrek ekartzen zaitu, pertsonalki eta enpresa bezala, asko mugitu beharra, berritu beharra eta buruari buelta batzuk eman beharra etorkizuna garantizatzeko.

Kanpora ateratzea da gakoa beraz.

Gure inguruan enpresa gehienak txikiak dira eta enpresa txikiak ari dira konfekturatzeko, gai direla kanpora ateratzeko, kanpoko merkatuetan mugitzeko, kanpora saldu ahal izateko. Hor talantea aldatu da. Lehenago errazagoa zen inguruan saltzea eta orain inguruan ez daukazu ezer ere, eta ingurura ere, kanpoko hainbat enpresa txiki etortzen ari direlako. Mugitu egin behar da, ez dago beste aukerarik.

Krisialditik indartuta aterako garela diote adituek.

Nik uste aukera berri asko ari direla irekitzen. Gainera nik uste dut, berpentsatzeko aukera eman digula: nola egin behar ditugu gauza, zer egin behar dugu, nola prestatu behar da jendea, zein tipotako dinamikak sortu behar dira bai enpresa barruan, bai gizartean, bai formakuntza perspektibatik, bai erakunde aldetik... Nik uste dut gauza asko ari direla aldatzen. Eta gauzak gaizki doazenean aldatzen duzu. Dena ondo badoa, zertarako arduratu gauzak aldatzeaz. Nik uste dut hortik, seguru, ondo aterako garela. Hori bai, ondo aterako, globalean. Momentu konkretu batzutan, orain adibidez, jendea oso gaizki pasatzen ari da.

Zuengana joaten dira aholku bila?

Unibertsitate bezala, enpresetatik eta erakundeetatik gertu dagoen unibertsitatea izatea nahi dugu. Bai formazioa ematen duen perspektibatik eta baita ere egiten den ikerketatik, aplikagarria izatea bilatzen baita. Hor harreman oso estua dago enpresa askorekin, ikerketa beraiekin batera egiteko, aholkuak emateko, eta elkarlanean hainbat irtenbide bilatzeko. Hori da gure erdua: enprekin formazioa prestatu eta ikerketak egin. Jendea etortzen da produktu berriak nahi dituelako, dauzkan produktuak ez dituelako saltzen, arazoak dauzkalako komertzializatzeko, edo finantzieroki beste eredu batera antolatzea nahi duelako enpresa... gero eta ohitura handiagoa dago unibertsitatearekin kontatzeko.

Guk ere ikusten dugu, gure ekarpena hori dela: formazio-teoriko soila emango duena ez izatea, formazioa aplikatu daitekeenetik ahalik eta gertuena izatea, eta egiten den ikerketa ere eskaintzea. Lan estu bat dago.

Zein gomendio ematen duzue?

Enpresa guztien errealitatea oso desberdina da, kasuan kasuan begiratu behar da. Baina hainbat kasu badaude amankomunean. Bat adibidez, flexibilitatearen garrantzia da. Gaur egun, edozein sektoretan baldin bazaude ere, bizkorra izatea oso garrantzitsua da. Bizkorra izateko, barrutik, modu flexible batean egon behar zara antolatuta, eta gai izan behar zara oso bizkor merkatu egoerara egokitzeko. Berrikuntza joera edukitzea eta beti adi egotea beharrezkoa da, ikusita lehiakideak zer egiten ari diren, bezeroak zer behar duen... hori da gai bat denoi ondo datorkiena. Momentu batean zuri gauzak ondo joan liezaizkizuke baina bat-batean baldintzak aldatzen dira eta desfasatuta gelditzen zara. Beti, enpresa guztietan, batzuk begiratzen egotea oso garrantzitsua da; ez biharra, baizik eta etzira.

Goierrin enpresa batzuk elkartu egin dira,

elkarlana lantzen ari dira.

Gero eta gehiago ikusten dena da, bi norabide daudela, ondo aplikatuz gero abantaila ematen duena. Bat da, enpresa barruan, langileen inplikazioa lortu nahi baduzu, langileek protagonismoa eduki beharra daukate. Ez bakarrik sakrifizioa eskatu behar diozun garaian, gauzak ondo doazenean ere bai.

Ez bakarrik sakrifizioa eskatu behar diozun garaian, gauzak ondo doazenean ere bai. Nik uste dut, kooperatibismoak arrakasta izan badu eta nahiz eta egoera zaila pasatu, klabea, langileak oso inplikaturik egotea uzab dela. Inplikaturik egon dira, onerako eta txarrerako, enpresako parte izan direlako. Ez hitzez, baizik eta baldintzaz. Baldintza ekonomikotan, erabakiak hartzeko garaian, ardurak

banatzeko garaian. Horrek ekartzen du momentu zail baten aurrean erantzun bat eman behar badiozu, jendea lotuagoa egotea. Norabide hau nik uste gero eta gehiago ematen dela eta ez bakarrik kooperatibetan, beste enpresetan ere bai. Beste enpresetan ere, langileen partehartzea bilatzeko moduak badaude. Urrutira joan gabe, CAFen kasuan, CAFeko bazkideak gehiengoak, langileen eskutan dago, parte hartze bat hartu zutelako.

Kooperatibetan bakarrik ez,

beste eredu batzuetan ere egin daiteke. Ikusten da gero eta garrantzitsuagoa dela eta ikusten da enpresentzat bertute bat dela lotura edukitzea. Bakoitzak ikusiko du zein formulazio ematen diozun.

Beste norabidea da, enpresen arteko elkartzeko. Ikustea, asozianismoak, elkarrekin konpartitu litezkeen gauzak konpartitua, indartsuagoak izan zitezkeela. Klasikoki ikusi izan dudana da, hori nire lehiakidea da eta ez diot ezer kontatuko. Bakoitzak bere merkatuko espazioa edukita, gauza batzuk konpartitzea ondo etortzen da. Batentzat ona da eta bestearentzat ere bai. Nik uste, interkooperaziorako joera bat badagoela enpresa ezberdinen artean.

“Gaur egun, edozein sektoretan baldin bazaude ere, bizkorra izatea oso garrantzitsua da. Bizkorra izateko, barrutik, modu flexible batean egon behar zara antolatuta, eta gai izan behar zara oso bizkor merkatu egoerara egokitzeko”.

“Enpresa barruan, langileen inplikazioa lortu nahi baduzu, langileek protagonismoa eduki beharra daukate. Ez bakarrik sakrifizioa eskatu behar diozun garaian, gauzak ondo doazenean ere bai”.



Dekanoa

"Irakasle lanean hasi nintzen EHUn. Euskarako plaza gehienak beteta zeuden garaian suertatu ginen gu. Orduantxe hazten ari zen Mondragon Unibertsitatea eta han sartu nintzen. Hasieran irakasle bezala. Gero beste saltsa batzuk atera ziren eta orain hor, dekanok lanean. Gustura nago. Jende edo talde on batekin egonez gero, polita da". Orain, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateko dekanoa da. "Enpresa baten gestioa bezala da dekanoa". Irakasle lana utzita dauka momentuz.

Krisi garaian ikusi da: langileen partehartzea gero eta handiagoa daukaten enpresen kasuan, flexibilitate gehiago dago. Flexibilitate horrekin errazago egokitzen dira, lanpostu gutxiago suntsitzen dira eta enpresa mantentzen da. Enpresen arteko interkooperazioa handiagoa den kasuetan ere, horrek flexibilitatea ematen du. Bolumen handiagoa daukazu gauza asko negoziatzeko, gauza asko planteatzeko... Hainbat politika amankomun egin litezke eta horrek ere indarra ematen du. Nik uste dut bi elementu horiek inportanteak direla eta nabarmendu egin direla, eta gero eta gehiago ari dira bultzatzen.

Enpresa munduan bezala, beste hainbat arlotan ere gomendio berdinak ematen al dituzue?

Enpresen munduan ari gara zentratzen baina erakundeetan edo kultur munduan ere berdina gertatzen da.

Hainbeste arazoren aurrean, argi berderik ikusten al da nonbait?

Datu batzuk hobetzen doazela dirudi. Kanpoko merkatuak hobetzen doazela ematen du eta esportatzen duten enpresak txukunago dabiltzala. Espainiako merkaturak oker dago baina kanpora begira jarri diren enpresa horiek buelta eman diete pixka bat.

Beste alde batetik, krisi honetan probatu da, ekonomian industriak pisu garrantzitsua izatea lagungarria dela. Azken urteetan mezua zen, industriaren pisua handia zen neurrian ekonomia zaharkitua eta atzeratua zela. Egia dena da, lanpostu askoz ere gehiago suntsitu direla zerbitzu sektorean industria sektorean baino. Industriak aguantatzeko gaitasun gehiago zerbitzuek baino.



Sendoagoa da industria sektorea?

Bai, ziur aski, baliabide gehiago konprometituta dagoelako. Industria baten askoz ere inbertsio gehiago egin behar dira, sortzen diren produktuak egiteko makineria behar delako. Zerbitzuetan askotan pertsonak dira eta pertsonak kontratatzea oso erraza da baina kaleratzea ere bai. Oso merkea da kalera-
tzea. Horrek ekartzen duena da, hazi, asko eta bizkor egiten dela, baina jaitsi ere berdin. Industriak sustrai sendoagoak ditu, konpromisoak ere handiagoak direlako, bereziki kapitalaren perspetibagatik. Orduan, lanpostuen aldetik, gehiago eutsi diete.

Gure kasuan hori ere gertatu da: industriaren pisua inportantea da eta horregatik lanpostuak ez dira hainbeste suntsitu.

Goierriren kasuan, momentu honetan, Indar daukagu hor, ehundik gora langile bota behar dituztela esaten da.

Krisi hau luzera doanez, hainbat enpresen erresistentzia frogan jartzen ari da. Agian hasieran eusten zaio baina erreserba, baliabide asko eduki behar dira. Merkatuaren arabera, konplikatu da.

Askotan, gogorra izan daiteke esatea, baina batzutan neurri horiek hartu egin behar dira enpresa aurrera atera ahal izateko, modu batera edo bestera: lanpostuak gutxituz, ebentualak jaitsiz... neurri hori ez bada bere garaian hartzen, enpresak hartzen duen pisuarekin dena goitik behera etortzen da. Beste gauza bat da, gai izan daitekeen, alde batetik, enpresak erre-montatu eta gero, jende hori inkorporatu ahal izateko edo ingu-

ruan beste proiektu batzuetan jende hori txertatu ahal izateko. Seguraski gogorra izan arren, erabaki hori hartzera behartuko ziren, enpresa aurrera ateratzeko, dena ez dadin erori.

Erresistentzia aipatu duzu, baina luzatzen ari da, ezta? Aurreikuspenak atzean gelditzen ari dira.

Aurreikuspenak ezer jakin gabe, itsuan botatakoak izan direla iruditzen zait. Baina egia da, luzatzen ari da eta hurrengo urte-

“Gauza bat da ekonomia hazten joatea, eta hazten ari da, baina beste bat da, zenbat hazi beharko litzatekeen lanpostuak sortzen hasteko. Barne Produktu Gordinaren % 2 2,5ko hazkuntza ematen ez den bitartean lanpostuak ez dira sortzen. Eta oraindik hortik urruti gaude”.

ko prebisioak ere jaitsi egin dituzte, kostatzen ari delako erabat hobetzea.

Jakina, gauza bat da ekonomia hazten joatea, eta hazten ari da, baina beste bat da, zenbat hazi beharko litzatekeen lanpostuak sortzen hasteko. Barne Produktu Gordinaren % 2-2,5ko hazkuntza ematen ez den bitartean lanpostuak ez dira sortzen. Eta oraindik hortik urruti gaude. Aste Santuko datuak pasatuta ematen du jaitsi egiten dela langabezia, gero igo... Oraindik hazkuntza mailak altuagoak izan behar dira benetan atera gara- la esateko.

Barne Produktu Gordinari begiratu beharko genioke beraz.

Krisitik atera gareneko aldagai garrantzitsuen da, lanpostuak sortzea eta netoan jende gehiago lanean egotea. Horrek ez du esanahi beste guztiak ez duenik balio. Beste aldagai batzuek zantzuak eman ditzakete. Hobea da %1,5ean hobetzen joatea, %1,5ean jaitea baino, dudarik gabe. Baina benetan esan daiteke gauzak aldatu direla, lanpostuak sortzen direnean. Eta orain ez da lanposturik sortzen. Lanpostu berriak sortu eta langabezia jaisten hastea da garrantzitsua. Lanean ari den langile kopurua handitzea ere bai. Izan ere, gerta liteke, langabezia jaitea, lan bila dabilen jendea errenditzen delako eta lana bilatzeari ere uzten diolako.

Lanpostuak sortzen aritzeak, aktibitate gehiago sortzen ari dela esan nahi du eta jende gehiago behar duzula aktibitate horretarako eta aspaldian ez da hori gertatzen ari.

Erakundeek neurri ezberdinak hartu dituzte. Lan erreforma, jubilazio urteak atzeratu... Egokiak izan al dira?

Neurri konfliktiboak dira eta beti krisi batean eztabaida hori sortzen da. Garbi zegoen sortzen zenak ez zuela ematen ordura artekoa mantentzeko. Orduan zein sakrifikatu? Beti eztabaida hori sortzen da.

Egokitze bat egin beharra zegoen derrigor. Azkenean, Estatuak diru gutxiago ingesatzen badu eta diru gehiago gastatu behar baldin badu egoera ekonomikoa txarragoa delako eta konpromiso batzuk daudelako, hori egokitu beharra zegoen era batera edo bestera. Hori alde batetik.

Gero baita ere, egia da, lan merkatuan gauzak gero eta errazago jarritz kontratazioen perspektibatik, kontratatzea errazagoa izango dela. Oreka nola lortu? Erraza izatea kontratatzea, esku-bide sozialak galdu gabe. Oreka bilatu behar da.

Nik esango nuke, hartzen joan diren neurriak alternatiba askorik ez zeukatela. Ez dugu ahaztu behar gainera, ez dugula guk eta guregatik eta guretzako hartzen ditugunak bakarrik. Azkenean, nazioarteko kontestu batean gaude. Estatu batek ez badauka berekasa behar adinako baliabiderik bere gastuei aurre egiteko, merkatuari eskatu behar dio. Eta merkatuak baldintzak jarriko dizkio. Baldintzak jarriko dizkio, zein sinisgarritasun ematen dionaren arabera. Ziur baldin badago bueltatuko diola, erraz emango dio eta gainera prezio onean. Zalantzak baldin badauzka, gehiago eskatuko dio. Hori nabarmen ikusten da herrialde bakoitzak duen arrisku mailan. Zein arrisku indize daukan Greziak edo Portugalek edo Espainiak edo Alemaniak, desberdina da. Zergatik dira desberdinak? Hori itzuliko delako garrantia handiagoa ala txikiagoa delako.

Joko horretatik ezin gara irten, nahi edo ez nahi. Joko horrek esplikatzen du hartu diren neurri asko, horra egokitu ahal izateko izan direlako, eta irteerak emateko. Eta ez bukatze-ko Greziak bukatu duen bezala.

Gero eztabaidatu dezakegu ondo hartu diren, garaiz hartu diren, berandu hartu diren, aurreagotik beste batzuk hartu ezin ote zitezkeen, ez ote garen aurreko urteetan aritu oso erraz gatzatzen eta gero estuasuna etorri den garaian atzera bueltatu behar izan dugun... Baina globalizazio ekonomikoak horra ekartzen gaitu. Arau batzuk daude, agian guk ez ditugu auke-

“Soziologiako eta psikologiako elementu asko sartzen dira ekonomian”

Egia guztia kontatzen al da krisialdietan?

Ekonomian azkenean, soziologiako eta psikologiako elementu asko sartzen dira. Gauza asko gertatzen dira, jendeak horrela gertatu behar direla sinisten duelako. Jakina, krisi garai batean oreka bilatu behar da: gezurrik esan gabe adierazi behar da gauza nola dagoen baina jendeari esperantza puntu bat ere eman behar zaio, dena ez dadin behera etorri. Segun eta zer espektatiba daukazu gertatuko dela, horren arabera kontsumituko duzu, horren arabera inbertituko duzu, horren arabera bidaiatuko duzu... eta horrek eraginak dauzka. Mezu positiboak ematen dira askotan, ez gezurra esateko, baizik eta jendea gauzak joango diren neurrian portatzen baldin bada, neurri batean lagunduko duelako hori horrela izaten. Oso oreka konplikatu da.

“Gauza asko gertatzen dira, jendeak horrela gertatu behar direla sinisten duelako. Jakina, krisi garai batean oreka bilatu behar duzu”

Dendariek asko antzeman dute krisia, dena den, orain eusten ari omen zaie.

Nik uste dut jendea lasaitu egin dela. Portaera asko joaten da, jendearen inpresioaren arabera. Hori indize batzuekin neurtzen da: kontsumitzaileen konfiantza neurtzen duen indizea. Tontakeria ematen du baina asko aurreikusten du horrek. Jendeak egoera ekonomikoa nolakoa den perzibitzen duen, hala jokatu du. Ehuneko edo berrehuneko gastua egingo du. Hori joango da lotuta espero duenarekin, bai bere kasu konkretuan eta bai ingurunean.

Krisiaren aurretik kontsumo maila ez al zegoen oso altu?

Oso altu zegoen. Oso altu zegoen baina bete egiten zen. Azkenean, ematen zuen lege bat zela: urtean hainbeste irabaziko dut, hainbeste gastatuko dut... eta jendeak horren arabera egiten zuen bizitza plana. Hau erosi, bestea erosi... horrela eta horrela ordaindu... diru sarrera fijoak izan behar zen hori erortzen hasten denean, ez zara iristen. Denok goraka goazenean hobeto ohitzen gara, atzeraka kosta egiten da.

ratu, baina aplikatu egiten zaizkigunak, bai ala bai. Horra egokitu behar da. Eta hartu diren neurri asko, horren arabera daude eta neurri askok alternatibarik ez daukatenak, gustatu ala ez gustatu.

Hor jokatu behar duzu eta merkatu ekonomiko baten barruan baldin bagaude, hortik ezin gara aislatu.



Xabier Sarasola, mende laurdena Loinatz abesbatza zuzentzen

Beasaingo Loinatz abesbatza 25. urteurrena ospatzen ari da. Xabier Sarasola beasaindarrak ia bizitza erdia darama abesbatza zuzentzen. 51 urte ditu eta 26 urte zituenetik dabil lan horretan. Azkenaldian lan gehitxo elkartu zaionez, abesbatzaren zuzendaritzan urtebeteko atsedentxo bat hartzeko asmoa du datorren urtetik aurrera.

1939an Pedro Jose Iguainek sortu zuen Loinatz abesbatza eta hamarkada bat ixilik egon ondoren, 1986an, Xabier Sarasolaren gidaritzapean hasi zen. Bizitza erdia Loinatz abesbatza zuzentzen daramatza Xabier Sarasola beasaindarrak. 26 urte zituela, Coral Loinazeko lehendakariak, Juanxo Alkaigak, proposatu zion abesbatza zuzentzea. “Nik ez neukan ideiarik ere. 26 urterekin, dagoeneko musika eskolan nenbilen umeekin lanean. Gabon korua ateratzen zen Patxi Lasarekin. Gabonetako korua indartsua zen Beasainen. 70 lagun aterako ginen kantari. San Inazio kalean zegoen Gaztedi lokalean entsaitzen genuen. Bi-hiru hilabetea aritzen ginen entsaiotan. Lau ahotsetara kantatzen genuen. Han azaldu genuen asmoa eta bertatik atera zen Loinatz abesbatza”, dio Xabier Sarasolak. “Gaztea nintzela esaten zuten gehienek. Ordura arte, abesbatzako jendea, jende helduarekin lotzen zen itxuraz. Baina susperraldia izan zen Gipuzkoan batik bat. Abesbatza asko sortu zen bolada hartan. Ni ez nintzen gazteenetakoa. Ni baino gazteagoak ziren”, gaineratu du beasaindarrak.

Belaunaldi ezberdinak

Harrezkeroztik 25 urte pasatu dira eta mende laurdena ari dira ospatzen Loinatz abesbatzakoak. Asteazken behin, ostiralean, elkartzen dira taldeki-deak. Zuzendariarekin batera, dozena bat lagun badira hasiera-hasieratik kantuan dabilzanak. “Mutiletan oso

mugimendu gutxi dago. Oso gutxi uzten dute, zorionez. Nesketan mugimendu gehiago egoten da”.

Dena den, belaunaldi ezberdinak sartzen joan dira etengabe. “40 pertsonen bueltan mantendu izan dut beti taldea, baina kostata”. Musika Eskolatik ateratzen direnekin mantendu du. “Musika Eskolan bi koru daude: 12-15 urte bitartekoen eta bestea 11-12 urtekoena. Taldetxo bat ikusten badut, tentatu egiten ditut. Unibertsitatera joaten badira helduen koruan sartu gabe, akabo! 6-8 laguneko talde txikiak sartzen badituzu, beraien artean giroa sortzen dute eta posible izaten da aurrera egitea. Bakarka sartzea zaila izaten da. Moztu egiten dira”.

Abuztuaren Parisa

Taldean jarraitzeko motibazioa lortzen jakin du Sarasolak. Irteerak, sariketak, kontzertuak... Esate baterako, abuztuaren bukaeran, 25. urteurrena ospatzeko, Parisa joango dira. Urteurren boro-bila denean horrelako irteerak egiten dituzte. 1997an esaterako, Londonen izan ziren eta Wensminsterren kantatu zuten. 2006an Erromara joan ziren eta Vatikanoko San Pedro elizan kantatu zuten. Aurten, Parisen, Notre Damen abestuko ote duten galdetu diogu. “Nahi bai! Handi samarra izango da guretzat. Aurkituko dugu zerbaite, Euskal Etxean behar bada”.

Beste bi irteera ere egiten dituzte urtean: San Asensiora, Lasalletarren aterpetxera,



Musikaria eta konposatzailea

Xabier Sarasola txistuari esker murgildu zen musikaren munduan. 12 urterekin hasi zen txistua ikasten Txanborekin. “Ondoren txistuko klaseak ematen jarri ninduen Txanbok La Sallen”, gogoratu du beasaindarrak. “Solfeoa Arantxa Gastesirekin egin nuen 19 urterekin. Soldaduskara joan eta bueltan hasi nintzen pianoarekin eta biolinarekin”. Urtebete egin zituen solfeoko bost urteak. Gaur egun, biolin, armonia eta kantu korala irakasten ditu Beasaingo Udala Musika Eskolan. Gainera, eskola horretako hari-orkestrako zuzendaria da.

Koro-zuzendaritza ikasi zuen Gipuzkoako Koro Federazioak antolatutako ikastaroetan. Hainbat irakasle emandako zuzendaritza-ikastaroetan parte hartu du (J. Busto, Eric Ericsson, A. Eby, C. Hogset, G. Graden eta abar). Donostiako Orfeoien kantaria izan da, eta, egun, KEA ahots-musika taldearen kide da. Talde horrek XX. eta XXI. mendeetako musika lantzen du.

Euskal Herriko Koro Federazioak antolatzen dituen ikastaroen zuzendaritza-irakaslea izan da, baita Federazio horretako batzorde teknikoko kidea ere. Horretaz gain, Federación Asturiana de Coros-ek antolatzen dituen zuzendaritza ikastaroetan irakasle bezala parte hartu du zenbaitetan. 2004an Gorizian (Italia) eta 2007an Arezzo (Italia) ospatu ziren Kantu Koralarren Europako Sari Nagusiaren epaimahaikide izan da. Gainera, 2007 ezkerostik Tolosako Abesbatza Lehiaketako epaimahaikideen presidentea da.

“Gabon korua ateratzen zen Patxi Lasarekin. Gabonetako korua indartsua zen Beasainen. 70 lagun aterako ginen kantari. San Inazio kalean zegoen Gaztedi lokalean entsaitzen genuen.”

25 urteko erreperitorioren errepasoa lau kontzertutan

Urte hauetan guztietan erreperitorio zabala osatu dute Loinatz abesbatzakoek. "Programa guztiak gordeta dauzkagu", dio beasaindarrak. Garai ezberdinetako musika izan dute oinarri. Abesbatzaren zilarrezko ezteiak ospatzeko, lau kontzertutan, 25 urteko ibilbidea laburbilduko dute. "Denetik egin dugu, baina asko erlijiosoa izan da. Asko dagoelako. XVI. mendera arte ez dago erlijiosoa ez den musikarik. XX. mendera arte, gaur egun, musika erlijiosoa asko egiten da. XVI. mendetik XX. mendera dagoen musikatik dagoen guztitik egin dugu zerbait. Organoarekin asko egin izan dugu, obra handiak, ordubeteko formatoan daudenak", azpimarratu du Sarasolak. Ildo horretatik, Aste Santuaren aurretik, hildako abesbatzako kideen omenez, Dafoe musikari fratziarren requiem-a abestu zuten.

Bigarren kontzertua, maiatzaren 21ean egin zuten, gaurko eta lehengo kantariak elkartuz. "Urte askotan egin dugun formato programa bat egin genuen: folklorea, euskal musika, moldaketaren bat edo beste eginda, instrumenturen baten laguntzaz".

Urrian izango dute hirugarren kontzertua. "Estreinaldia izango da. Karlos Jimenez pianojoleak duela 4-5 urte sei kanta egin zizkigun eta orduan ezin izan genuen dena egin. Orain egingo dugu. Bera etorriko da pianoa jotzera. Hondarribitarra den Javi Busto, mundu guztian dabilen konpositorearen beste estreinaldi batzuk ere sartuko ditugu. Heren bat nire obrakin, beste heren bat Karlos Jimenezen obrekin eta beste herena Bustorenarekin osatuko dugu".

Laugarrena eta azkena berri, Gabonetan izango



dute. "Azken 10 urteotan, Donostiako orkestra barroko batekin egin dugu kontzertua. Bach, Vivaldi, Hendel... horrelako obra handiak egin ditugu eta haietatik beste estrakto batzuk kantatuko ditugu", zehaztu du. "Errepaso potentea egingo dugu. Korua ondo dago, memoria ona dauka... Maila ona daukate", gaineratu du.

"Denetik egin dugu, baina asko erlijiosoa izan da. Asko dagoelako. XVI. mendera arte ez dago erlijiosoa ez den musikarik".



asteburu pasa, kontzertu garrantzitsuak prestatu behar dituztenean, eta “Elosegi ardozaleak ere gonbidatzen gaitu bodega batera. Taldea egiteko oso onak izaten dira horrelako”, dio Sarasolak.

Gazteak erakartzea kosta egiten dela dio. Askotan beste formato batzuk erakargarriago egiten zaie. Esate baterako, Euskal Telebistan Oh Happy Day programan koreografia bultzatzen zuten. Sarasolaren ustez, “bisualki bai, erakargarriagoa egiten zaie. Gizartea horrela dago. Zuek ere badakizue aldizkarian testua bakarrik ez dela joan behar; argazkiak ere behar direla. Zerbait bisuala egitea bultzatu egin izan dute. Beraiek esaten zuten, hau show bat da eta guk showa nahi dugu. Baina musika korala show bat da? Izan daiteke. Nik ikusten dut denentzako lekua dagoela. Baina zenbat ezagutzen dituzu horretan mugitu direnak? Nik ez dut ezagutzen. Hortik pasatu diren guztiek baliatu

“Abesbatzaren arazoetariko bat da, ez dakigula produktua saltzen.

Kultur klasiko hori ez dago modan eta bisualki egitea oso zaila da”.

dute beraien formakuntzan zerbait eranstean dielako, on egiten dietelako esparru berri bat probatzea. Koru erreperitorioak aldatu egin behar izan dira eta horretarako ez daude prestatuak. Material hori prestatzen jendeak lana egin du eta ondo ordaindu zaie baina material hori non dago? Lehenengo urteko irabazleek, Errenterikoe, esan dute beraien bidea ez dela hori. Nola eta ez zaren musikaletara joaten... Baina hemen ez dago horrelakorik. Onartzen dut, haurrei asko gustatzen zaiela mugimendua eta hor ibili behar da tarteko zerbait egiten. Ez da erraza”.

Saltzen jakin ez

Ildo horri jarraituz, Sarasolak ondokoa dio: “abesbatzaren arazoetariko bat da, ez dakigula produktuak saltzen. Kultur klasiko hori ez dago modan eta bisualki egitea oso zaila da. Kantua mugimenduekin... Gure koru musika XIV. mendetik dator. XX. mendera arte, dena dago.

Sariak

- ✓ **2007an:** Lehen saria "VI Concurso Nacional de Masas Corales, Antonio José" (Burgos).
- ✓ **2003an:** Bigarren saria "III Noveldako Hiria musika erlijiosoko abesbatza lehiaketan" (Alacant).
- ✓ **1999an:** Lehen saria "XXX Certamen Coral Ejea de Los Caballeros" (Zaragoza).
- ✓ **1992an:** Lehen saria "XXIII Certamen Coral Ejea de los Caballeros" (Zaragoza).
- ✓ **1990ean:** Hirugarren saria "VII Certamen Coral Villa de Aviles" (Asturias).



“Kontsumoko zerbait bihurtu da musika”

Gaur egungo musika lantzen ote duten galdetu diogu Xabier Sarasolari eta ondorengo hausnarketa egin du. “Produktua bera ikaragarri aldatu da. Ez dakit onerako edo txarrerako den. Kontsumoko zerbait bihurtu da musika. Gaur egungo musika zein da? Gaurko kantariak ematen digutena... Gaurko kantariak ematen digutena kontsumo musika bezala, baina XV. mendean askoz ere gauza aurrerakoiagoak egiten ziren. Bisualki ere zer gertatzen zaigu? Produktuak asko aldatu dira, erabiltzen dituzten mekanismoak asko aldatu dira baina musika ez. Grafitiaren adibidea jartzen dut beti: graffitia bera, elementu berri bat da. Baina han ikusten duzuna zerbait berria da? Marrazkia bera, aspaldi gainditutako sistemak dira. Ez dago gauza berririk. Hausnarketa sakona da. XX. mendean estilo guzti-guztitako musika egin da. Orain etortzen da bat ez dakit nolako martxarekin. Martxa? Ez dauka ideiarik ere. Joan zaitez XIX. mendera eta ikusi zein martxa dagoen. Bethovenen sinfonía bat osorik entzun, eta gero hitz egingo dugu martxaz. Konparatuko dugu. Gaur egun gitarrarekin ateratzen den soinu martxatatz hartzen da. Denentzako lekua dago, baina gaur egun ikasleei ulertaraztea konplikatu da. Badakigu obra batzuk publikoarentzako zailak izaten direla. Beti saiatzen naiz mikrofonoa hartu eta hitz batzuk esaten, obra kokatzen, jendea hezten, tes-tuinguru hori jartzen”.

Jazz musika egin nahi baduzu koru musikan, aspertu arte daukazu. Oso musika konplikatu da eta horri espektakulua gehitu behar zaio. Nik musikari bezala ez dut behar. Koruak kantatzen ikustearekin nahikoa dut. Jakina, serio-serio, aurpegian espresiorik gabe kantatzen ikusi beharrean, nahiago dut, aurpegian alaitasun pixka bat ikustea, zerbait adierazi nahi izatea. Niri korua eta dantza ez zaizkit gustatzen, baina jendeari bai”.

Teknologia berriak

Garaiak aldatu egin dira eta musikaren alorrean ere nabaritu dituzte ondorioak. “Ordenadoreak mesede handia egiten digute gauza mordo batetan, baina esfortzu horretan ez dakit. Botoi bati emanda gauza gehiegi gertatzen da. Musika ez da horre-

Aurrerapenak nahita nahiez etorriko dira”.

Hori bai, iPad delakoari ikusten dizkio abantailak Sarasolak. “Atril batean orriak pasatzeak ez dauka zentzurik. Gaur egun iPad horietarako-ekin nahi adina partitura sartu ditzakegu. Milaka eta milaka. Botoi bati eman eta pasatu egingo litzateke”.

Ondo gogoan du partitura nola moldatu izan dituzten hainbat eta hainbat urtean. “Partitxelak Joxe Sarriegik prestatzen zituen. Txukuntxukun. Isabel Olanok izenburua jartzen zieten letra politarekin”.

Entzule fidela

Modan egon ala ez egon, Beasainen behintzat ez dira kexatzeko moduan. “Harrituta gelditzen gara koruaren emanaldietara zenbat jende joaten den. Eserita

“Produktuak asko aldatu dira, erabiltzen dituzten mekanismoak asko aldatu dira baina musika ez”.

la. Edo guk erakusten dugun musika ez da horrela. Gu ere hasita gaude, ordenadorearekin gauza mordo bat egin baidaitzke. Hori ere ezin duzu albo batera utzi. Gaur egun entzuten den musika asko musikariak ez direnek egindakoak dira”.

Garai berrietara egokitze-ko asmoarekin, Bizkaian, musika eskoletako irakasleak elkartu egin dira. “Aurreko bilerara Beasaingo musika eskolako hainbat irakasle joan ginen eta lan handia egiten ari direla ikusi dugu. Bizkaiko musika eskoletako irakasleak izugarrizko bultzada ematen ari dira. Material asko sortzen ari dira.

400 pertsona sartzen dira eta behin baino gehiagotan jendea zutik egoten da”.

Loinatz abesbatza bera ere sasoi onean dagoela dio Sarasolak. Beste zuzendari baten esku utzi nahi du taldea, atsedenditxo bat hartu nahi duelako. “Utzi behar dut lan mordoa daukadalak. Gauza asko sortzen zaizkit. Hemendik kanpora ere asko, epaile bezala, konposizioak... Zerbait eskatzen dizue-nean joan egin behar zara. Korukoek astean zehar ezin du entsaiatu, ostiraletan bakarrik. Nik irteera asko ostiraletan izaten ditut. Gainezka nabil eta ez da ona”.

Ordizia

Ekaineko ekintzak

Ekainak 4, larunbata:

20:15ean: 'Penedes-eko Centre Excursionista Abesbatzaren kontzertua, Elizan. Antolatzailea: Santa Ana Abesbatza.

Ekainak 5, igandean:

Dantzari Txiki Eguna. Parte hartuko duten taldeak: Amaiur (Iruña), Otsoak (Ataun), Oin-arin (Lazkao), Goruntz (Gabiria), Iztueta (Zaldibia), Sutarri (Alegi), Jakintza (Ordizia) eta Urdaneta (Ordizia). Antolatzailea: Jakintza Dantza taldea.

Ekainak 10, ostirala:

20:15ean: Parrokian Andoaingo Udal Musika Eskolako Abesbatza Txikia eta Gaztea. Antolatzailea: Oroith Abesbatza Elkartea

22:15ean: Barrena Kultur Etxean Iñaki Salvadorren kontzertua, 'Mikel Laboaren omenez'. Babeslea: Kutxa. Ekitaldi honetan Kimetz Kontakizun Laburren XVII. Lehiaketaren sari banaketa egingo da.

Ekainak 14, asteartea:

19:00etan: Herri Antzokian, ikasturte amaierako Musika Eskolako ikasleen kontzertua.

Ekainak 16, osteguna:

20:15ean: Parrokian, Oroith eta Oroith txiki abesbatzen kontzertua.

Ordizia



Ordiziarrock 2011

Ekainak 16, osteguna:

18:00etan: D'elikatuzen, Munduko musika instrumentuen erakustaldi didaktikoa (historia, teknika eta erakustaldia).

20:00etan: "La Pulga" txalapartarekin (Flamenko dantzari bat Txalapartarekin fusionatuz), D'elikatuzen.

Ekainak 17, ostirala:

22:00etan: Herri Antzokian, Pertsona gorrei egokitutako kontzertua. Euskal Herrian lehenengo aldiz burutuko den ekitza, hain teknika ezberdinak erabiliz: Funky Punkie Party Clowns (Malaga).

Ekainak 18, larunbata:

Kontzertuak: Blues Sesion (Ordizia), El cerdo que grunge (Ordizia) eta Funky Punkie Party (Malaga). Gaztetxean.

Erakusketa

Ekainaren 6tik 30era, Barrena Kultur Etxean, Barrena Zeramika Tailerreko eta Patxi Epelderren ikasleek erakusketak. Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara.

Jubilatuen ekitaldiak

Ekainak 9, osteguna:

11:00etan: Ordizia-Ataun San Gregorio-Lazkao-Ordizia ibilaldia.

Ekainak 16, osteguna:

Txangoa: Larrun-Sara-Bera-Irun. Ekainaren 7a baino lehen eman behar da izena.

Ekainak 18, larunbata:

18:30ean: Ikasturte bukaerako dantzaldia disko musikarekin.


SILVIA MIRAS CASASAYAS
 ODONTOLOGOA
 KOL. Zka: 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
 SAN INAZIO KALEA, 2
 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

Ikaskide
 irakaskuntza eta pedagogia

UDAKO MATRIKULA ZABALIK!

ERREPASOA, ERREKUPERAZIOAK
 UNIBERTSITATE MAILA (MU)
 INFORMATIKA IKASTAROA
 IKASKETA TEKNIKAK
 IKASKETA ARAZOAK, IRAKURMENA,
 ULERMENA, ARRETA...
 INGELERA TRINKOA

Joan Iturralde, 5 Beasain
 tel.: 943 160 120
 www.ikaskide.net


biok
 zerbitzuak

Tel 943 88 44 00
 Faxa 943 80 51 27
 www.biokzerbitzuak.com
 Ordizia Urdaneta, 7

kudeaketa
 fiskala
 kontablea
 merkatala
 laborala



Goierrit Hartxo

Goierriko haurren aldizkaria 36. zenbakia 2011ko ekaina



Errugbia, denentzat kirola



Ordiziako Rugby Taldea harrobia mimatuz:

Errugbia eta **haurrak**

Ordiziako Rugby Taldea bolada onean da azkenaldian. Ohorezko Mailan aurre-aurrean ibili zen azkeneko denboraldian. Gainerako taldeak ere oso maila ona ematen ari dira. Bolada on horren arrazoiatariko bat, harrobian egindako lana da. Txiki-txikitatik haurrak errugbira erakarri eta txiki-txikitatik entrenatzen hasten dira. “Harrobia lantzen saiatzen gara txiki-txikitatik. Harrobitik Lehenengo taldera igotzea oso zaila da, baina ilusioa izaten da. Klubaren helburua, harrobiko taldearekin funtzionatzea eta ahalik eta kanpoko joka-

lari gutxiena edukitzea. Horretarako harrobia landu beharra dago”, dio Antonio Villafranca, Ordizia Rugby taldeko kideak.



“1997-1998an jaiotakoak animatu nahi ditugu, probatzera etor daitezela. Astean bi entrenamendu izaten dira: asteazkenetan 18:00etan eta ostiraletan 17:00etan”



Haurugby

Esate baterako, maiatzaren 21ean, Ordizian eta Beasainn, gatzetxoek VII. Edizioa jokatu zuten. Biarritz, Hernani, Ordizia, Gipuzkoako selekzioa, Boucau Tarnos, Ondres, Northe Bearn, Larresoro, Arrangoitze, Kanbo, Ustaritz, Ziburuu, Ejea de los Caballeros eta Bilboko taldeak izan ziren. Lapurdiko Larresorok irabazi zuen txapelketa. 200 haur inguruk hartu zuten parte. “Beste rugby bat ezagutzeko aukera bezala sortu zen Haurrugby”, dio Villafrancak.

Haurrentzako entrenamenduak

Denboraldi amaierako ekitaldia izaten da Haurrugbya baina urte guztian entrenatzen aritzen dira 8 urtetik gorako haurrak eta gatzetxoak. Txikienek, adibidez, igandetan, goizeko 9,30etatik 11,15etara izaten dituzte entre-

namenduak. Errugbiko arauak ikasi bai baina jolasetan oinarritzen dituzte entrenamenduak. “Hemen ez dago txapelketarik. Inguruko ikastetxeekin kolaboratzen da. Adinaren arabera, entrenamendu egunak, bat edo bi izaten dira. Gipuzkoan irteerak egiten dituzte”. Goierrihartxok ikusi duenez, gustura ibiltzen dira haurrak. Dutxatu ondoren gainera, otartekoa ematen diete opari gisa. Eta partidurik badago, jokalariei pasilloa ere egiten diete txikienei.

Antonio Villafrancak goierrihartxori esan dionez, datoren denboraldiari begira, infantil mailako mutilak erakarri nahi dituzte, harrobia lantzeko jarraitzeko. “1997-1998an jaiotakoak animatu nahi ditugu, probatzera etor daitezela. Astean bi entrenamendu izaten dira: asteazkenetan 18:00etan eta ostiraletan 17:00etan”.




Dena den, “gero eta haur gehiago hurbiltzen da. Lehen, maila guztietako eskilara osatzeko arazoak izaten ziren, baina orain osatuta dago. Badakizu, taldea ondo etortzen doanean jendea etorri egiten da. Baina beti behar izaten da jendea. Gertatzen da urte batean haur gehiago egotea eta hurrengoan gutxiago. Kirol ezberdin asko dago Goierri eta futbola dago erdian”.

Udarugby

Udari begira beste aukera bat eskaintzen du Ordizia Rugby Taldeak: Udarugby. Oinarria errugbia bada ere, ekintza ezberdinak egingo dituzte 8 eta 14 urte bitarteko haurrek, ekainaren 27tik uztailaren 22ra. Astea izena emateko aukera ere egongo da. Ingelesa izango da udalekuon hizkuntza. Lagunak egiteko beste aukera bat ere ba da.



Kopiatu irudia



Frederick

Autorea: Leo Lionni

Ilustratzailea: Leo Lionni

Itzultzailea: Koldo Izagirre

Argitaletxea: Kalandraka

Orrialde kopurua: 40

Frederick basoko saguen artean desberdina da. Udazkenean ez du lagundu negua pasatzeko janari bila. Senideei esan die eguzkiaren izpiak, koloreak eta hitz ederrak biltzen ari dela. Eta, jakina, ez diote tutik ulertu. Negu gorrian, ordea, janari eskasia iritsi denean, Frederick senideen artean bildu zuena zabaltzen hasiko da: orain eguzki izpiak, jarraian koloreen isla, hurrengoan hitz ederreko poemak. Eta bihotzez eskertu dizkiote haiek denak!

ZER IRAKURRI?

*Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura Elkarteko
Irakurketa Mintegia*



Ekilorea

Autorea: Anne Schneider

Ilustratzailea: Anne Schneider


Itzultzailea: Aztiri

Argitaletxea: Tarttalo

Orrialde kopurua: 24

Margot neskatoak ekilore hazi bat landatzen du. Landarearen hazkuntza osoan zehar hantxe egongo da, hura zaindu eta harriduraz begiratzen. Udazkenean ekilorea ihartzen hasiko da eta egun batean guztiz zimelduko da. Margot oso triste jarriko da, ahalegin guztiak alferrikakoak irudituta, baina, bat-batean, txori bat ekilore zimelduaren haziak jaten hasiko da.

Istorio honekin urtaroen eta naturaren zikloen berri ematen da.



Aurkitu bidea

Zein bide jarraitu behar du raketak pilota jotzeko?

Sudokua

9x9-ko laukian hutsik dauden laukitxoak bete behar dituzu, 1etik 9ra bitarteko zenbakiak idatziz, eta kontuan izanik zenbaki bakar bat ere ez dela bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, ezta dagokion 3x3-ko laukian ere.

			2			3	4	9
			3	6		2		
3	5		9		4		1	
	9	7	8	5				4
2	1		6	4				7
4		5			7	6		
	7	6	5			4	3	
5	3	9	4		2		6	
8	2		7	3	6	9	5	1

goierri^H artxoren
lagunak:






Gabiriako Etxeberribizkai baserriko sendia 1940. urte inguruan

Argazki honetan Oñatibia Mandiola anai-
arrebak ageri dira.

Goiko ilaran: Joxe eta Baxilio Oñatibia
Mandiola.

Beheko ilaran: Antonio eta Angelita
Oñatibia Mandiola.



MUJKA
LIBURUDENDA
Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



AUZOKI
Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599
Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486

- ✕ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✕ Komunitateen kontabilitatea
- ✕ Akten idazketa
- ✕ Aurrekontuen eskaera
- ✕ Aholkularitza legala
- ✕ e.a.




GRAFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA
NAFARROA ETOR, 17
Tel 943 88 94 82
Faxe 943 88 60 44
BEASAIN

PSIKOLOGI KLINIKOA



ARGÍ Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01
AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak



NELSON BARBOSA
ERREFORMAK
Gremioen koordinazioa
tel.: 687 837 011 Unzurruzaga, 9 behea **SEGURA**

Bada garaia etxetik bidaltzeko!!

11ko udalekuak



- 1.- Ekainaren 27tik uztailaren 8ra
- 2.- Uztailaren 11tik 22ra
- Kolonia txiki 2006/2007
- 4-5 urte 2002/2005
- Kirol kolonia
- 6-9 urte 1995/2001
- Kirol festa
- 10-16 urte 1995/2001
- Kirol abentura

Bazkideak

56,5 € txandako
105 bi txanda

Ez bazkideak
97,5 txandako


Zaintza zerbitzua badago



info.antzizar@masquatro.com

943 887 900

berrikuntzak // bainuak // sukaldeak // zeramikak // hidromasajea // gremioak // proiektuak



dekorazioa // diseinua // irisgarritasuna // aholkularitza teknikoak // laguntzen bideratzea

Disainua, Sorkuntza, Faktore.net
Nortasun Grafikoa
marka konpainiak